
**Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko
Plan Zuzentzailea
2003-2006**

**Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzza Saila**

2003ko uztaila

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
SARRERA	6
1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN AZKEN URTEOTAN IZAN DEN EZBEHAR KOPURUAREN DATURIK ESANGURATSUENAK	8
1.1. ANALISI KUANTITATIBOAREN INDIZEAK	8
1.2. LANALDIAN GERTATU DIREN ETA EZGAI-EGOERA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK.....	10
1.3. ERAGINAREN INDIZEAREN EBOLUZIOA	12
1.3.1. Urteko eboluzioa	12
1.3.2. Urteko hilabeteen arabera	13
1.4. EZBEHAR TASA, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA.....	14
1.5. EZBEHAR TASA, ISTRIPUAK GERTATZEAREN EZAUGARRI NAGUSIEN ARABERA	14
1.5.1. Lesionatutako gorputz-atalaren arabera.....	14
1.5.2. Lesio motaren arabera	15
1.5.3. Istripua gertatzeko eraren arabera	17
1.5.4. Asteko egunaren arabera	19
1.5.5. Istripuak laneko zein ordutan gertatu zirenaren arabera	19
1.6. EZBEHAR TASA, ISTRIPUA IZAN DUTEN LANGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA	20
1.6.1. Sexuaren arabera.....	20
1.6.2. Ezbehar tasa, adinaren arabera	21
1.6.3. Kontratuaren iraupenaren arabera	21
1.6.4. Langilean lanpostuan duen antzintasunaren arabera	21
1.7. EZBEHAR TASAREN ANALISIKO ZENBAIT ONDORIO	22
2. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEN ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA ..	23
2.1. LEGEDIA ETA ARAUDIA	23
2.2. EUROPAR BATASUNEN ERREFERENTZIAK.....	25
2.3. ESPAINIAR ESTATUKO EGOERA.....	26
2.3.1. Duran Txostena	26
2.3.2. Beste Autonomia Erkidegoetako zenbait erreferentzia	29
2.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	32
2.4.1. Analisi Kuantitatiboa	32

2.4.2. Analisi Kualitatiboa	32
3. OSALAN- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN EBOLUZIOA.	36
3.1. OSALANEN SORRERA	36
3.2. OSALANEN FUNTZIOAK.....	37
3.3. OSALANEN JARDUERA EREMUAK (1998-2002).	38
4. INGURUAREN EBOLUZIOA ETA AURREIKUSI DAITEZKEEN EGOERAK.....	40
4.1. INGURUAREN EBOLUZIOA.....	40
4.2. AURREIKUSI DAITEZKEEN EGOERAK	42
5. EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENTZAT DUEN LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA	44
5.1. ZEREGINA, IKUSPEGIA, PRINTZIPIOAK ETA BALOREAK.....	44
5.2. ERAKUNDE ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA.....	46
5.3. ENPRESABURUEKIN ETA GIZARTE-AGENTEEKIN ELKARLANEAN ARITZEA	47
5.4. PLAN ZUZENTZAILEAN BARNE HARTZEN DIREN JARDUEREN OINARRIAK	48
5.5. PLAN ZUZENTZAILEKO HELBURUAK.....	49
6. EGOERAREN AMIA MATRIZEA: GARAI BERRIETAKO ERRONKAK.....	51
7. ARLO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUTEKO LERROAK	56
7.0. SARRERA	56
7.1. ARLO ESTRATEGIKOEN EDUKIAK	59
7.2. ARLOKO JARDUTEKO PLANAK.....	83
7.3. PLANETIK ERATORRITAKO BARNEKO JARDUERAK.....	83
8. PLAN ZUZENTZAILEAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA	83
8.1. URTEKO KUDEAKETA PLANAK.....	83
8.2. JARDUEREN HILEKO TXOSTENA	83
8.3. OSALANEKO KONTSEILU NAGUSIA.....	83
8.4. GIZA BALIABIDEAK, BALIABIDE TEKNIKOAK ETA AURREKONTUKO BALIABIDEAK	83
9. PLANA ONARTU ARTE AURREIKUSITAKO URRATSAK	83

AURKEZPENA

Segurtasuna ez da laneko jardueren artean dagoen egoera bat gehiago. Segurtasunak ezin ditu baldintzatu erakunde baten produktibotasuna edo erakunde horrek ematen dituen produktuen edo zerbitzuen kalitatea. Aitzitik, segurtasuna Euskadin lan egiten duten pertsona guztien eskubidea eta zeregina da.

Lanpostuek dituzten arrisku inplizituekin batera bizi behar dugu, baina ezin gaitzke inola ere konformatu arrisku horiek ekidinezinak direla pentsatzearekin. Prebentzioa laneko arriskuen aurrean jarduteko oinarritzko printzipioa da eta lan munduari eta, orokorrean, gizarte osoari helarazi behar diegun lehentasunezko gaia da.

Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez, bere gain hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten pertsonen Laneko Segurtasun eta Osasun baldintzak hobetzeko erronka eta erantzukizuna. Erronka horri aurre egin ahal izateko, esku artean duzun Plan Zuzentzailea jarri du martxan, 2003tik 2006ra doan Plana, hain zuzen ere.

Planaren baitan dagoen izaeraren zenbait ezaugarri garrantzitsu azpimarratu nahi ditut.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzatik, biztanleek gure lanaren hartzaile bezala duten garrantzia azpimarratu nahi dut. Hori dela eta, diseinatutako lerro estrategikoen azken helburua Euskadiko langileen osasun eta segurtasun baldintzak hobetzea da.

Plan Zuzentzailea, langileen beharrak eta prozesu guztietan parte hartzen duten Agenteen (sindikatuak eta langileen ordezkariak, enpresa-erakundeak, mutualitateak eta prebentzio zerbitzuak, Administrazio Publikoko hainbat agente eta adituak) sentiberatasuna aztertzearen ondorioz sortu zen. Aipatutako guztiek, jorratzen ari garen arloan lehentasuna duten interesak definitzen lagundu digute.

Plana, eta Planetik eratorritako jarduteko lerro nagusiak, parte hartzen duten Agente guztien arteko Elkarte Gunea izateko helburuz sortu ziren. Gure ustez argi baitago, ezbehar tasa murrizteko eta laneko baldintza seguru eta osasungarriak lortzeko orduan, elkarlana dela arrakastarako bidea.

SARRERA

Laneko segurtasun eta osasunaren oinarritzko ideia eta helburu nagusia istripu (pertsonek gainean kalteak eragiten dituztenak eta eragiten ez dituztenak) eta lanbide gaixotasun guztiak ezabatzea da, horretarako prebentzioaren printzipioari lehentasuna ematen dioten laneko sistemak aplikatuz.

Egungo egoera ulertu ahal izateko, komeni da aurreko aldien ikuspegi historikoa izatea. 1800 urtetik aurrera, Industria Iraultzaren eragina sumatzen hasi ginen; lurrin makinak sartzearekin batera, pertsona kopuru handia kontratatzen zuten fabrikak ezartzen hasi ziren eta, aldi berean, meatzaritzako baliabideak (ikatz eta burdina, batez ere) azkar ustiatzen hasi ziren.

Lana industria gune handietan egiten zen eta, osasun baldintza kaskarren ondorioz, hainbat istripu gertatu ziren eta, horiek eraginda, pertsonak hil eta lesionatu ziren. Horren ondorioz sortu ziren Arbuiozko higikundeek, ordura arte Segurtasuna ulertzeko moduaren kontzeptua garatzea eta eboluzionatzea eragin zuten. Hainbat lege azaldu eta garatu zituzten, hona hemen zenbait adibide:

- Ingalaterrako Fabriken lehen Legea, 1802
- Alemaniako langileei Kalte-ordaina emateko lehen Legea, 1880
- Ontarioko langileei Kalte-ordaina emateko Legea, 1915

XX. mende hasieran Segurtasunaren kontzeptua prekariora zen, Laneko Segurtasuna izeneko ekintza zuzentzailea zen, nagusiki jada gertatu ziren istripuei eta horiek eragindako ondorio larriei eskaintzen zien arreta .

1900 urtean Lan Istripuen Legea (DATO Legea) sortu zen; Lege horrek Segurtasunarekin zerikusia duten gaiak zuzentzen dituzten oinarriak ezarri zituen eta horietako batzuk oraindik ere indarrean daude. Lege horren arabera, istripua "*Besteren kontura egindako lanaren ondorioz, langileak jasaten duen gorputzeko edozein lesio*" da. Hori horrela, legeaz, istripua bertan parte hartu duten pertsonen lesioak jasan badituzten soilik gertatu da.

Horretaz gainera, nagusiak langileek lanean izandako istripuen erantzukizuna dutela, babes neurriak ez daudenean, langileei kalte-ordainak eman behar dizkiela eta nagusiak zerbitzu horiek Aseguru Agentzien bitartez bermatzeko aukera ere dago jasota.

Lege horrek agerian uzten du istripuaren ondorioak arintzeko joera duen izaera konpontzailea, baina istripua gertatu ostean soilik du eragina.

Aldi horren ostean, Segurtasun Teknikoaren kontzeptua etorri zen; helburua Segurtasun Teknikoaren bitartez, segurtasun zerbitzu espezifikoaren bidez pertsonen gaineko kalteen aurka egitera bideratuta zegoen prebentzioa lortzea zen. Segurtasun Teknikoari bultzakada handia eman zion Williams Heinrichek, Ameriketara, 1931 urtean.

Heinrichek *istripu zuriaren* kontzeptua sartu zuen, hau da, langilearen gain kalterik eragiten ez duen istripuarena; horri esker, *istripua* jada ez da lesioak eragiten dituena, baizik eta garatutako jardueraren ohiko prozesua eteten edo oztopatzen duen edozein gertaera.

Ikusmolde hori pixkanaka aldatuz joan zen, 1940 eta 1970 bitartean, enpresetako antolamendu egituretan sartzen zen Berriazko Segurtasun edo Segurtasun Teknikoaren ikuspegira gerturatuz; eta pertsonen gainean kalteak eragiten zituzten istripuak murrizteko helburua izateaz gainera, galera ekonomikoak ere eragiten zituen edozein istripu murrizteko

helburudun prebentziorako oinarri zabaleko ikuspegi orokorrago edo administraziozkoagoa zuen ikuspegira gerturatuz joan zen.

1966an, E. Birdek kontzeptu berri bat sartu zuen: *Arrisku* hutsa den eta lesiorik eta kalte materialik eragiten ez duen istripuarena; horretaz gainera, lehen arazoa aurkitu zuen: “nola motibatu administrazioa prebentzio programa berriak ezartzeko”.

Azterlan horrek zuzendaritzak Segurtasuna kudeaketako elementu bat gehiago bezala, edota beste elementuak baino garrantzitsuagoa zen elementu gisa aintzat izan zezan oinarriak ezarri zituen. Izan ere, Segurtasunaren kudeaketa txarrak Kalitate faltak, errendimendu faltak edo produkzioa murrizteak eragiten dutena baino arbuio gehiago eragin ditzake.

1970etik aurrera, segurtasunaren ikusmolde moderno hori munduan zehar hedatuz joan zen, Integratutako Segurtasuna sortu zen, eta etorkizuneko Segurtasun Programak garatzeko orduan gakoa izan zen faktore berria sortu zen: “Zuzendaritzak Segurtasunaren Kudeaketan Parte Hartzea”.

Zuzendaritzaren lidergoaren bitarteko segurtasunak atsegin gehiago ematen du, ekonomikoagoa da, eta lan taldeek edo Gobernuaren parte-hartzeak ezarritako segurtasunak baino pozbide eta arrakasta gehiago ematen ditu.

Era horretan heldu gara, beraz, egun dugun Integratutako Segurtasunaren egoerara. Integratutako Segurtasuna, lanaren antolamenduaren printzipio modernoei jarraituz, antolamenduaren egitura osatzen duten pertsona guztiei dagokie, eta erakunde batean egiten diren jarduera guztiek berezko duten eta horiengandik bereizi ezin daitekeen zati dela kontsideratzen da.

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN AZKEN URTEOTAN IZAN DEN EZBEHAR KOPURUAREN DATURIK ESANGURATSUENAK

Aurkezten ditugun datuak lanaldian gertatu diren eta ezgai-egoera eragin duten istripuei buruzkoak dira. Ez ditugu aintzat izan lanbide gaixotasunak, berrizkaturak, ezgai-egoerarik eragin ez duten istripuak ezta "in itinere" istripuak (etxetik lantokirako bidean eta lantokitik etxerako bidean gertatzen diren istripuak) ere, horien ezaugarrien ezagutza askoz ere interesgarriagoa baita laneko ezbehar kopuruaren prebentzioaren ikuspegitik.

1.1. ANALISI KUANTITATIBOAREN INDIZEAK

Jarraian aipatzen direnak, ezbehar kopuruaren eboluzioa analizatzeko, LANEren Laneko Estatistikalarien Nazioarteko XVI. Biltzarrean (1998ko urriaren 6-15) gomendatutako indizek ohikoenak dira :

$$\text{Eraginaren indizea (Ei)} = \frac{\text{Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripu kopurua} * 10^5}{\text{Arriskuaren eraginpean dagoen langile kopurua}}$$

Eraginaren indizeak arriskuaren eraginpean dauden ehun mila langile bakoitzeko lanaldian zehar gertatzen diren eta ezgai-egoera eragiten duten istripu kopurua adierazten du

$$\text{Maiztasunaren indizea (Mi)} = \frac{\text{Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripu kopurua} * 10^6}{\text{Lan egindako orduak, guztira}}$$

Maiztasunaren indizeak langileak lan istripua jasateko arriskuaren eraginpean izan ziren denbora tartearen arabera istripu kopurua adierazten du

$$\text{Larritasunaren indizea (Li)} = \frac{\text{Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripu kopuruak direla-eta lanera joan gabeko egunak} * 10^3}{\text{Lan egindako orduak, guztira}}$$

Larritasunaren indizeak, guztira lan egindako ordu kopuruaren arabera, Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripuak direla-eta galdutako denbora adierazten du. Indize horren bitartez, istripuek eragindako lesioak neurtzen dira eta, horrexegatik, garrantzitsua da prebentzio neurriak hartzeko orduan.

$$\text{Ezgai-egoeraren batez besteko iraupena (Bi)} = \frac{\text{Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripuak direla-eta lanera joan gabeko egun kopurua}}{\text{Lanaldian zehar gertatutako eta ezgai-egoera eragin duten istripuak}}$$

Indize horrek istripu bakoitzeko lanera joan gabeko egun kopurua adierazten du

Indize horiek egiteko orduan, jarraian aipatzen direnak hartu behar dira kontuan:

- *Lanaldian zehar gertatu diren eta ezgai-egoera eragin duten istripu kopurua*, “in itinere” istripuak, lanera joatean edo handik itzultzean gertatutako istripuak kontuan izan gabe. Hau da, jarraian aipatzen diren egoeretako batean gertatutako istripuak: ohiko lantokian, lanaldian zehar lekuz aldatzean eta beste lantoki batean gertatutakoak.
- *Arriskuaren eraginpean dagoen langile kopurua*: gizarte segurantzaren eta lan istripuen gertagarritasuna era espezifikoa estalita duten erregimenetan afiliatuta dauden langile guztiak: Erregimen Orokorra, Ikatz-meatzaritzako Erregimen Berezia, Nekazaritzako Erregimen Berezia eta Itsas Langileen Erregimen Berezia.


Datuak jasotzeko orduan dauden mugak eta iturri posibleen arabera dagoen aldakortasuna dela-eta, egindako azterlanaren arreta Eraginaren Indizean (Ei) jarri dugu. Indize hori kalkulatzeko metodoak ez ditu aintzat hartzen langileen oporraldiak, arriskuaren eraginpean dauden langileak kalkulatzeko Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak hartzen baitira kontuan eta langileek oporraldian ez dutelako Gizarte Segurantzaren baja ematen. Hori dela eta, jende asko oporretan dagoen hiletan (Gabonak, Aste Santua eta abuztua) Indizearen balioa baxuagoa izan behar litzake, istripu gutxiago egon beharko lirakeelako (lanean jende gutxiago ari delako) eta izendatzailea aldaketarik gabe mantentzen da (arriskuaren eraginpean dagoen langile kopurua).

Maiztasunaren indizeak informazio zehatzagoa ekarriko luke, lan egindako ordu kopuruari buruzko informazioa zehatzagoa izango balitz. Orokorrean, guztira lan egindako ordu kopuruaren kalkulua arriskuaren eraginpean dauden langile kopuruaren eta pertsona bakoitzak, batez beste, lan egiten duen ordu kopuruaren produktu bezala egiten da eta, hori dela eta, ez du informazio garrantzitsurik ematen, Eraginaren Indizearen gehigarri den informaziorik, alegia.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, estatistikak aldaketak jasango ditu, lanbide arriskuen gertagarritasuna estalita duten langile autonomoak sartuko dira eta.

1.2. LANALDIAN GERTATU DIREN ETA EZGAI-EGOERA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK


1997tik 2002ra bitartean gertatu diren istripuen eboluzioa (1. Irudia) aztertzen badugu, 2000 urtera arte hazkundea izan dela eta azken urteotan egoera egonkortu dela ikus dezakegu.



1. Irudia: EAEn guztira izandako istripu kopuruaren eboluzioa

Aipatzekoa da grafiko horretan istripuen guztizko kopuruari buruzko datuak islatuta daudela, eta ez arriskuaren eraginpean dagoen biztanleria aktiboa aintzat hartzen duen eraginaren indizearenak.


Bestalde, 1990etik gertatu den eboluzioan (2. Irudia) istripu larrien kopuruak denborarekin behera egiten duela ikus dezakegu.



2. Irudia: EAEn izandako istripu larrien kopuruaren eboluzioa

Euskal Autonomia Erkidegoan heriotza eragin duten istripuei buruzko datuak (3. Irudia) aztertzen baditugu, estatistikaren ikuspegitik, eboluzioaren joera argirik ez dagoela ikus dezakegu.

Heriotza eragin duten istripu kopurua, parte hartu duten langileentzat oso ondorio txarrak izan dituzten 70-90 istripuen lerroen artean ibili da eta ez dago zentzu horretan identifikatu daitekeen joerarik. 2000 eta 2001 urteetan lan istripuetan izandako heriotzen zifren joera beheranzkoa izan bazen ere, 2002an hazkunde txikia izan zuten berriro ere .



3. Irudia: EAEn heriotza eragin duten istripu kopuruaren eboluzioa


Aurretik aipatu ditugun datuek, laneko ezbehar-tasa interpretatzeko eta analizatzeko orduan laguntzen badute ere, ez dute uzten aldagai beraren mailen arteko alderaketa homogeneoak era zuzenean ezartzen, batez ere alderaketa horien bitartez legediak ezartzeko helburua badago. Horretarako tresnarik egokienak indizeak dira, istripuen eta erreferentziako biztanleriaren (hau da, istripua izateko arriskuaren eraginpean dagoen biztanleria aktiboaren) arteko harremanak aztertzea ahalbidetzen dutelako.

Ikus ditzagun, bada, aipatutako eraginaren indize horietan oinarrituz garatu diren datu adierazgarriago batzuk.

1.3. ERAGINAREN INDIZEAREN EBOLUZIOA

1.3.1. Urteko eboluzioa

4. irudian EAEko **eraginaren indizearen eboluzioa** (ehun mila langile bakoitzeko lanaldian zehar gertatu diren eta ezgai-egoera eragin duten istripu kopurua) ikus dezakegu.



4. Irudia: EAEn Eraginaren Indizeak izan duen Eboluzioa


Eraginaren indizeen emaitzak EAEn denbora tarte berean izan diren istripuen guztizko kopuruarekin (1. Irud.) alderatzen baditugu, bi grafiko horien eboluzioa paraleloa ez dela ikus dezakegu.

Istripuen guztizko kopuruaren eboluzioak, 2000 urtetik aurrera, goranzko joera du eta, epe horretan bertan, eraginaren indizearen joera beheranzkoa da argi eta garbi, urte horietan arriskuaren eraginpean dauden langileen kopurua hazi delako.

Egoera horrek ezbehar kopuruaren analisi egokia Eraginaren Indizearen eboluzioa aztertuz egin behar dela justifikatzen du, Indize horretan arriskuaren eraginpean dagoen biztanleria aktiboari buruzko datuak hartzen direlako aintzat.

1.3.2. Urteko hilabeteen arabera

Industria sektorean, 1999 eta 2002 artean, Eraginaren Indizeak hilabetea izan duen eboluzioa (5. Irud) analizatzen badugu, indizeetan hainbat “tontor” eta “ibar” ikus ditzakegu.




5. Irudia: Industria Sektorean Eraginaren Indizeak hilabetea izan duen eboluzioa (Iturria: Osalan)

Osalanen Aldizkarian (Estatistikak, 2000 urteko abenduaren 31ko ezbehar kopuruari buruzko Txostena), “tontorrak” abenduan, urtarrilean, apirilean eta abuztuan daudela ikus dezakegu, eta lan istripuen eta enpresen jarduera handiago eta txikiagoaren arteko harremana aurkitzen dugu: “lan istripuen eta enpresen jarduera ekonomikoaren artean dagoen harremanari buruz EAEko industria sektoreko enpresatan aurkitu ditugun emaitzek, IPIren (Industria Produkzioaren Indizea) bitartez neurtutakoek, denbora tarte horietan ikusten den istripu tasaren hazkundearen zati handi bat enpresa horietako produkzioa hazten delako gertatzen dela esan dezakegu”. Jarrera-eredu hori hurrengo urteetan (2001 eta 2002) errepikatzen da ere.

Lehen begiradan, badirudi eraginaren Indizeak behera egiten duela oporretan (Aste Santua, Udara eta Gabonak), egun horietan pertsona gutxiago ari direlako lanean (Indizearen izendatzaileak jasotzen ez duen alderdia da hori) eta, horrexegatik, istripu gutxiago daudelako. 2002an, Aste Santuko Oporrak martxoan eta apirilean izan ziren, horrek urte hartan hilabeteko eboluzioaren eredia zehatz-mehatz ez bete izana justifikatzen du. Bestalde, oporretan ere enpresako produkzioak behera egiten du eta baliteke fruitugabea izatea enpresen produktibotasunaren eta istripu-tasaren arteko kausa-ondorioa harremana bilatzea.


Eraginaren Indizeak eraikuntzaren sektorean hilabeteka duen eboluzioari (6. Irud.) dagokionez, Indizea Industria Sektorean (5. irud) baina aldakortasun handiagoa duela ikus dezakegu, izan ere, oporraldiak ez dira Industria Sektorean bezalakoak.



6. Irudia: Eraginaren Indizeak Eraikuntzaren sektorean hilabeteka duen eboluzioa
(Iturria: Osalan)

1.4. EZBEHAR TASA, ISTRIPUA IZAN DUTEN LANGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA

7. Irudia behatzen badugu eta sektore guztien eraginaren indizea kalkulatu badugu, EAEn eraikuntzaren sektoreko eraginaren indizea 1999 eta 2002 urteen bitartean, batez beste, gainerako sektoreetan jasotakoa baino 2,4 bider handiagoa izan dela ondorioztatu dezakegu.



7. Irudia: EAEko Eraginaren Indizea, sektoreka
(Iturria: Osalan)

[LEYENDA]

Agricultura: nekazaritza

Industria: industria

Construcción: Eraikuntza

Servicios: Zerbitzuak

Istripu larrien kasuan dagoen aldea 2,6 bider handiagoa da eta, heriotza eragin duten istripuen kasuan, 2,8 bider handiagoa.


1.5. EZBEHAR KOPURUA, ISTRIPUAK GERTATZEAREN EZAUGARRI NAGUSIEN ARABERA

Jarraian ezbehar kopurua aztertuko dugu, istripuak gertatzearen ezaugarri nagusien arabera: lesionatutako gorputz-atala, istripuek eragindako lesioak, istripuak gertatzeko era, asteko zein egunetan gertatu ziren eta laneko zein orduan gertatu ziren.


Ezbehar kopurua lesionatutako gorputz-atalaren, lesio motaren eta istripua gertatzeko eraren arabera aztertzeko, Paretoen Diagrama erabiltzen dugu; Diagrama horren bitartez, eragin jakin bat izateko orduan laguntzen duten faktoreen artean, garrantzia handia dutenak ("hil edo biziko gutxi", gutxi gorabehera % 85 dira horiek) eta garrantzia gutxikoak (garrantzi gabeko asko) aurkitzen ditugu, alderaketa kuantitatibo eta antolatuan oinarrituz.

1.5.1. Lesionatutako gorputz-atalaren arabera

Industria eta eraikuntzaren sektoreetan izan diren, eta lesionatutako gorputz-atalaren arabera istripuen ehuneko banaketaren eboluzioa 8. eta 9. irudietan islatzen da.



8. Irudia: Ezbehar kopurua lesionatutako gorputz-atalaren arabera. Industria (Iturria: Osalan)



9. Irudia: Ezbehar kopurua lesionatutako gorputz-atalaren arabera. Eraikuntza (Fuente: Osalan)


Urteetan zehar, bi sektoreetan mantentzen da istripuen % 86k istripuaren adierazpenean kodetutako 13 gorputz-ataletatik 6ri eragiten dietela: “eskuak”, “beheko soin-atalak (oinak izan ezik)”, “oinak”, “goiko soin-atalak (eskuak izan ezik)”, “gerrialdea eta sabelaldea” eta “bularraldea, bizkarra eta saihetsak”.

Hona hemen industria eta eraikuntza sektoreen artean dauden aldeak:


- Lesio gehien jasaten dituen gorputz-atala eskuak dira. Baina industrian eskuek jasandako lesioak, batez beste, gutzizkoaren % 32 dira eta eraikuntzan, berriz, % 22.
- Horretaz gainera, industrian lesionatutako gorputz-atal horrek beheranzko joera duela ikus dezakegu; joera hori ez dugu ikusten eraikuntzaren sektorean.
- Eraikuntzan aipatzekoa da beheko soin atalak (oinak izan ezik) lesioak jasandako gorputz-atalen bigarren lekuan daudela, % 18ko batez bestekoarekin. Hala ere, industrian bigarren lekuan badago ere, ez dago alderik gorputz-ataletan izaten diren eta jarraian aipatzen diren lesioekin: goiko soin atalak (eskuak izan ezik) eta oinak.
- Bistakoa dirudi industria sektoreetan eskuetan jasandako lesioak gainerako gorputz-ataletan jasandako lesioak askoz ere ohikoagoak direla eta eraikuntzan, berriz, “Beheko soin ataletan (oinak izan ezik)” eragin handia dagoela; baliteke hori istripuen tipologiari (altueratik erortzea eta abar) dagokionez sektorean dauden egoera espezifikoek eragitea, eta baita eraikuntza-lanetako lan baldintzek beraien eragitea ere .

1.5.2. Lesio motaren arabera

Industrian eta Eraikuntzan gertatutako istripuak lesioaren arabera ehuneko banaketaren eboluzioa (10 eta 11. irudiak) aztertzen badugu, egoera urteetan zehar antzekoa dela ikus dezakegu eta gertatzen diren lesioen % 83tik gora “bihurrituak, zaintiratuak eta distentsioak”, “bestelako zauriak”, “makatuak eta zanpaketak” eta “hezurrak haustea eta lumbagoa” direla ikus dezakegu.



10. Irudia: Ezbehar kopurua, lesio motaren arabera. Industria
(Iturria: Osalan)



11. Irudia: Ezbehar kopurua, lesio motaren arabera. Eraikuntza
(Iturria: Osalan)


10. eta 11. irudien arabera, jarraian aipatzen dena atera dezakegu ondorioz:

- Lesiorik ohikoenak bihurrituak, zaintiratuak eta distentsioak dira, eta bi sektoreetan (eraikuntzan eta industrian) goranzko joera dute.
- Hezurak haustea, beheranzko joera izateaz gainera, grafikoan adierazten diren bost lesio moten artean eragin txikiena duen lesio mota da; bost lesio mota horiek, aurretik esan bezala, lesio guztien % 83 biltzen dute.
- Lumbagoak, berriz, goranzko joera du. Baliteke hori azken urteotan lan merkatuan eta lan motetan gertatzen ari diren aldaketengatik izatea, eta horrek etorkizunean lesio mota horiek izango duten eboluzioa aurreikusteko ideia ematen digu.

1.5.3. Istripua gertatzeko eraren arabera


Industrian eta Eraikuntzan izandako istripuen, gertatzeko eraren arabera banatuta, ehunekoaren banaketak izan zuten eboluzioa 12 eta 13. irudietan ikus dezakegu.

Industria sektorean (12. irudia) gertatzen diren istripuen % 83tik gora “gehiegizko ahaleginengatik”, “objektu edo tresnekin izandako kolpeengatik”, “objektuen artean harrapatuta geratzea”, “manipulatu ari diren objektuak erortzeagatik”, “zatiak edo partikulak askatzeagatik”, “geldirik dauden objektuekin talka egiteagatik” eta “pertsonak maila berean erortzea” gertatzen dira.



12. Irudia: Ezbehar kopurua istripua gertatzeko eraren arabera. Industria (Iturria: Osalan)

Eraikuntzaren sektorean gertatutako istripuak (13. irudia) aztertzen baditugu gertatzen diren istripuen % 83tik gora “gehiegizko ahaleginengatik”, “objektu edo tresnekin izandako kolpeengatik”, “pertsonak maila berean erortzeagatik”, “pertsonak maila ezberdinetan erortzeagatik”, “manipulatu ari diren objektuak erortzeagatik”, “zatiak edo partikulak askatzeagatik” eta “objektuak zanpatzeagatik” gertatzen dira.




13. irudia: Ezbehar kopurua istripua gertatzeko eraren arabera.
Eraikuntza
 (Iturria: Osalan)

12. eta 13. irudien arabera, jarraian aipatzen diren ondorioak lor ditzakegu industria eta eraikuntzaren sektoreetan:

- Istripuak gertatzeko erarik ohikoenak gehiegizko ahalegina eta objektu edo tresnekin izandako kolpeak dira bi sektoreetan; gehiegizko ahaleginek goranzko joera dute .
- Eraikuntzan istripuak izateko bestelako erak azaltzen dira, hala nola, pertsonak maila ezberdinetan erortzea eta objektuak zanpatzea, eta objektuen artean harrapatuta geratzea istripua izateko erarik gertaerazenen artean desagertzen da.

1.5.4. Asteko egunaren arabera

14. irudian istripu gehien gertatzen den eguna astelehena dela ikus dezakegu, azken urteotan beheranzko joera badago ere. Asteko gainerako egunetan istripu kopurua aldaketarik gabe mantentzen da.



14. Irudia: Ezbehar kopurua asteko egunaren arabera
(Iturria: Osalan)

Grafiko horretan ez ditugu aintzat izan asteburutan gertatutako istripuak: ez dugu logikoa iritzi gainerako lanegunekin parekatzea, arriskuaren eraginpean dagoen biztanleria kopurua askoz ere txikiagoa delako. Dena dela, logikoagoa da astelehen eta ostirala bitartean arriskuaren eraginpean dagoen biztanleria aktiboa aldaketarik gabe mantentzen dela pentsatzea.

1.5.5. Istripuak laneko zein ordutan gertatu zirenen arabera

Istripua laneko zein ordutan gertatu zenari dagokionez, lanaldiaren hasieratik zenbatuz, istripu kopuru handiena laneko bigarren eta hirugarren ordutan gertatzen da. Heriotza eragiten duten istripuei dagokienez, lehen orduan gertatzen dira gehien eta, jarraian, bigarren eta seigarren orduak daude.

1.6. EZBEHAR TASA, ISTRIPUA IZAN DUTEN LANGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA


Jarraian, istripua izan duten langileen berezko ezaugarriak aztertuko ditugu, hau da, sexua, adina, kontratuaren iraupena eta langileak lanpostuan duen antzintasuna aztertuko ditugu.

1.6.1. Sexuaren arabera

15. irudian 1998 eta 1999an emakumezkoek izandako istripuak gora egin zuela ikus dezakegu, eta 2000, 2001 eta 2002an sexuaren arabera izandako istripuen ehunekoa aldaketarik gabe mantentzen dela ikus dezakegu.

Eboluzio hori ezbehar kopuruaren ehuneko datuekin analizatu dugu eta engainagarria izan daiteke biztanleria aktiboak sexuen arabera izan duen eboluzioa aztertzen ez badugu.

Bistakoa da azken urteotan emakumezkoak tradizioz ia ez zeuden sektoreetan sartzeko prozesuak aurrera egiten jarraitu duela. Horrek justifikatzen du, hain zuzen ere, emakumezkoen ezbehar kopuruak gora egin izana, baina ez du zertan esan nahi eraginaren indizean gorakada izan denik.



15. irudia: Ezbehar kopuruaren eboluzioa sexuaren arabera

(Iturria: Osalan)

Analisi mota hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da sexu bakoitzeko biztanleria aktiboaren eta jarduera sektoreen araberrako diskriminazioaren datuak izatea, azterlan hori zehaztasun handiagoz egin ahal izateko.

1.6.2. Ezbehar tasa, adinaren arabera

Azken urteotako datuen arabera, langile gazteenek (16-34 urte bitartekoek) 35 urtetik gorako langileek baino arrisku zertxobait handiagoa dute istripu larria edo heriotza eragiten duen istripua jasateko orduan.

Datu horien interpretazioa ezin da soilik 35 urtetik gorakoa izateagatik istripua izateko arriskua txikiagoa dela izan. Datu horiek istripuengan eragina duten parametro konplexuagoek baldintzatzen dituztela izan behar dugu kontuan, hala nola pertsona gazteenek arrisku handiagoa duten lanak egiten dituztela edo langilearen eskarmentuak berak ere eragina baduela.

1.6.3. Kontratuaren iraupenaren arabera

Ezbehar kopurua istripua izan duten pertsonen kontratuaren iraupenaren arabera aztertzen badugu, lanaren behin-behinekotasunaren eta lan istripua jasateko arriskuaren artean harreman estatistiko argia dagoela egiaztatzen dugu.

Aldi baterako kontratua duten soldatako langile gazteek, kontratu mugagabea duten soldatako gazteekin alderatuta, lanaldian ezgai-egoera eragiten duen istripua jasateko arrisku handiagoa dute. Hori horrela, istripu larria edo heriotza eragiten duen istripua jasateko bi bider arrisku handiagoa dute aldi baterako kontratua duten langileek, betiere kontratu mugagabea dutenekin alderatuta.

1.6.4. Langileak lanpostuan duen antzintasunaren arabera

Kontratuen antzintasuna behatzerako orduan, istripu gehienak 7 hilabeterainoko antzintasuna duten langileek jasaten dituztela ikus dezakegu; istripuen ehunekoak, langileak lanpostuan duen antzintasunak gora egiten duen heinean, behera egiten du.

1.7. EZBEHAR TASAREN ANALISIKO ZENBAIT ONDORIO

Txostenean aurkezten diren datuak aztertuz, zenbait ondorio interesgarri lor ditzakegu.

- Eraginaren urteko eboluzioan, 2000 urtetik aurrera, Eragin globalaren indizean joera aldaketa izan dela ikus dezakegu; hori 2002ko datu berriek egiaztatzen dute.
- Sektoreka, eraikuntzako eraginaren batez bestekoa guztizkoaren batez bestekoa baino 2,4 bider handiagoa da eta, heriotza eragiten duten istripuen kasuan, 2,8 bider handiago izatera heltzen da.
- Lesionatutako gorputz-atalak, lesio motak eta istripua gertatzeko erak Paretoren jarduteko oinarritzko printzipioari jarraitzen diote; "ondorioen" % 80 "kausen" % 20ekin identifikatu dezakegu. Horrek ezbehar kopuru handiena pilotzen duten jarduera sektoreetan aurrez aurreko ekintzak aurrera eramatea komenigarria denaren ideia indartzen du.
- Lesio motari dagokionez, bihurrituak, zaintiratuak eta distentsioak dira eragin handiena dutenak, jarraian makatuak eta zanpaketak, hezurak haustea, lumbagoa eta abar daude (bai industrian, bai eraikuntzan).
- Istripua gertatzeko erari dagokionez, gehiegizko ahaleginek, objektu edo tresnekin izandako kolpeak dira eragin handiena dutenak (bai industrian, bai eraikuntzan); jarraian "objektuen artean harrapatuta geratzea" dago Industrian eta "pertsonak maila berean erortzea" Eraikuntzan.
- Aipatzekoa da bihurrituek, zaintiratuak eta distentsioek eta lumbagoak izan duten hazkunde progresiboa, eta baita gehiegizko ahaleginek izan duten hazkunde progresiboa ere.
- Istripuak asteko zein egunetan gertatzen direnari dagokionez, astelehenean gertatzen da istripu gehien, nahiz eta beheranzko joera ikusi. Horrek astelehena laneko segurtasunarentzat "egun beltza" deneko ideia baztertzen laguntzen du.
- Hilabeteen arabera eraginaren eboluzioak tradiziozko oporraldiekin harreman logiko eta zuzena du. Interesgarria liteke ezbehar kopuruaren eta oporraldietako produkzio mailen arteko harremana ezartzen saiatzea, baina ez dirudi azterlan horrek ondorio argiak ekarriko dituenik.
- "Eskuetan" dute eragin gehien istripuek, eraikuntzaren sektorean, jarraian "Beheko soin atalak (oinak izan ezik)" daude. Badirudi horrek banako babes ekipamenduen erabilera edo eraginkortasunaren gabezia erakusten duela, gorputz-atal horiek babesteko ekipamenduetan behintzat.
- Horretaz gainera, langile gazteen artean, aldi baterako kontratuak dituzten langileen artean, eta lanpostuan 7 hilabetetik beherako antzintasuna duten langileen artean ezbehar kopurua handiagoa dela ikus dezakegu. Datu horiek parametro horien eraginpean dauden langileek arrisku handiagoa dutela frogatzen dute.

2. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEN ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA

2.1. LEGEDIA ETA ARAUDIA

Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoan Laneko Segurtasun eta Osasunari erreferentzia egiten dioten araudi nagusiak:

- ✓ 89/391/CEE Europako Esparru Zuzentaraua, Espainiako Legedira 31/95 Legearen bitartez sartu zena.
- ✓ Azaroaren 8ko 31/1995 Laneko Arriskuen Prebentziokoa Legea: laneko baldintzak arautzeko oinarriak ezartzen ditu eta helburua langileak lanetik eratorritako arriskuen aurrean babestea da, eta baita langileek enpresan prebentzioari lotutako gaitan parte har dezaten mekanismoak ezartzea.
- ✓ Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako ED, Langileen Estatutua
- ✓ Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako ED, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra
- ✓ Urtarrilaren 17ko 39/1997 ED, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena
- ✓ Uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua (159. EHAO, abuztuaren 20koa), Euskal Autonomia Erkidegoko Prebentzio Zerbitzuen Jarduerak arautzen dituena .
- ✓ 1997ko ekainaren 27ko Garatzeko Agindua (159. BOE, uztailaren 4koa), enpresetako kanpoko prebentzio zerbitzu bezala berezitatutako enpresak egiaztatze baldintzak ezartzekoa.
- ✓ 1879/1996 ED, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionala arautzen duena.
- ✓ LANEren Segurtasun eta Osasunari buruzko 155. hitzarmena.
- ✓ 1997ko apirilaren 22ko agindua, Gizarte Segurantzaren Lan istripu eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateen funtzionamendua arautzen duena.
- ✓ Maiatzaren 12ko 1995/1978 ED, Gizarte Segurantzaren Sistemako Lanbide Gaixotasunen ezaugarriak.
- ✓ Sanitateko Lege Orokorra.
- ✓ Gizarte Arloko Arauhauste eta Zigorrei buruzko Legea.
- ✓ Uztailaren 16ko 21/1992 Legea, Industriari buruzkoa.
- ✓ Apirilaren 14ko 485/1997 ED, Segurtasun seinaleei lotutako gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- ✓ Apirilaren 14ko 486/1997 ED, lantokietako segurtasun eta osasun gaitako gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- ✓ Apirilaren 14ko 487/1997 ED, kargak eskuz manipulatzeari lotutako segurtasun eta osasun gaitako gutxieneko xedapenei buruzkoa.

- ✓ Apirilaren 14ko 488/1997 ED, bistartzeko pantailak dituzten ekipamenduekin egiten den lanari lotutako segurtasun eta osasun gaietako gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- ✓ Maiatzaren 12ko 664/1997 ED, langileak lanaldian zehar eragile biologikoen eraginpean egoteak dituen arriskuengandik babesteari buruzkoa.
- ✓ Maiatzaren 12ko 665/1997 ED, langileak minbizia eragiten duten agenteen eraginpean egoteak dituen arriskuengandik babesteari buruzkoa.
- ✓ Maiatzaren 30eko 773/1997 ED, banako babes ekipamenduak erabiltzeari loturiko segurtasun eta osasun gaietako gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- ✓ Uztailaren 18ko 1215/1997 ED, langileek laneko ekipamenduak erabili ditzaten, segurtasun eta osasun gaietako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak.
- ✓ Uztailaren 18ko 1216/1997 ED, arrantza-ontzietan egiten den lanaren segurtasun eta osasun gaietako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak.
- ✓ 1997ko abenduaren 19ko Laneko Arriskuen Prebentzio gaietako Lanbide arteko Akordioa, 1998ko urtarrilaren 27ko EHAOn argitaratu zena eta Confedebek zentral sindikal adierazgarrienekin, ELA, CCOO, LAB eta UGTekin, sinatu zuena.
- ✓ Otsailaren 5eko 216/1999 ED, aldi baterako laneko enpresen esparruko segurtasun eta osasun gaietako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak.
- ✓ Apirilaren 6ko 374/2001 ED, lanean daudenean, eragile kimikoei lotutako arriskuen aurrean, langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa.

2.2. EUOPAR BATASUNeko ERREFERENTZIAK

Laneko segurtasun eta osasunak hainbat erataria laguntzen dio langileen enplegugarritasunari, hala nola lanpostua berriro diseinatzeari, lan ingurune osasungarri eta segurua mantentzeari, prestakuntzari eta eguneratzeari, laneko eskariak ebaluatzeari, sendagilearen diagnostikoari eta gaitasun funtzionalak ebaluatzeari.

Europako hainbat erakundek laneko segurtasun eta osasunaren inguruan aurrera eraman dituzten zenbait ekimen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak jasotzen ditu; Agentziaren Egoitza Nagusia Bilbon dago kokatuta. Ekimen horien artean, jarraian aipatzen diren adibideak azpimarratuko ditugu

- Lanbide Gaixotasuna enpresa eta erakundeetan aurkitu osterako Prebentzio, Birgaitze eta Berriro lanean Hasteko Programak
- Kontratazio Publikorako eta Azpikontrataziorako Prebentzio Programak (azpikontratazaileentzat gero eta baldintza zorrotzagoak ezartzen dituzte)
- Komunitateko Laneko Segurtasun eta Osasunarekin zerikusia duten enpresatako ekimenak eta tokiko komunitatearekiko konpromisoa sustatzeko programak
- Enpresek Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko txostenak egin ditzaten sustatzen Programak (istripu kopurua, lanean ez egotea, gaixotasunagatiko ezgai-egoerak, erretiro aurreratua, langileak txandakatzea, lan orduak)
- Produktuen Laneko Segurtasun eta Osasunaren alderdiei (produktuen etiketak, gizartearen eta ekologiaren errekonozimenduak eta agiriak) ekiten dieten aztertze sistemak erabili daitezten sustatzeko Programak, bezeroaren konfiantza produktuaren segurtasun eta diseinuaren bitartez irabazteko asmoz
- Banku etiko eta sozialaren bitartez, Gizartearekiko erantzule diren Inbertsio Programak
- Prebentzio programak eta arrisku talde espezifikoak (lanerako gaitasuna mantentzea, arrisku gehien duten sektoreetan enpresaburu eta langileekin hitzarmenak egitea, sentiberatze kanpainak eta abar)
- Gaixorik dauden langileak birgaitzeko Programak.
- Lantokian osasuna sustatzeko ekimenak.


2.3. ESPAINIAR ESTATUKO EGOERA

2.3.1. Duran Txostena

Espainiar Estatuko Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoerari buruzko erreferentzia nagusia Duran Txostenean oinarritzen da (Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Presidente ohiak, Federico Duránek, egin zuen azterlana eta 2001eko martxoaren 13an aurkeztu zuen). Txosten hori egin ahal izateko, Espainian 1993 eta 1999 bitartean ezbehar kopuruak zuen egoera analizatu zuen, eta baita horren arrazoiak eta ondorioak ere, eta horrekin batera, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen lagun zezaketen neurriak aztertu zituen:

Txostena egiteko, Espainian Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoeran eragiten zuten alderdiak aztertu zituen.

Jarraian aipatzen direnak, eragina zuten alderdi horiek dira:



Eragina zuten alderdiak aztertu ostean, azterlanaren ondorio nagusia Gobernuak lanean zegoen ezbehar-kopuruaren arazo larriari aurre egiteko neurririk hartzen ez zuela izan zen.

Hona hemen azterlanean lortutako bestelako ondorioak:

⇒ Europar Batasuneko gainerako herrialdeei dagokienez:

- Espainia da, Europar Batasuneko herrialdeen artean, azken urteotan lan istripua izateko arriskuaren hazkundea izan duen bakarra.
- Ezgai-egoera eragiten duten istripuak gertatzeari dagokionez, bigarren estatua da, Portugalen atzetik.

Orokorrean, hori guztia enpresetako lanpostuetako baldintzetako alderdi arriskutsuen prebentzioan dauden gabezien ondorioa da.

- ⇒ **Laneko baldintzak negoziatzeko orduan gaitasun txikia** duten pertsonengan **ezbehar-kopuruak eragin handiagoa** duela aurkitu zuten:
 - **Gazteek**
 - **Aldi baterako kontratuak** dituzten langileek (kontratu mugagabea dutenekin alderatuta, heriotza eragiten duen lan istripua izateko 2,5 bider arrisku handiagoa dute)
 - **Antzintasun txikiagoa** duten langileek (3 urtetik beherako antzintasuna duten langileen artean, lanaldian zehar ezgai-egoera eragiten duten istripuen eragina, 3 urtetik gorako antzintasuna dutenekin alderatuta, bikoitza baino gehiago da)

- ⇒ Horretaz gainera, lanaldian zehar ezgai-egoera eragin zuten istripuen eragina gainerako lanbide guztien batez bestekoa baino 3 bider handiagoa izan zen (*in itinere* gertatutakoak alde batera utzita) jarraian aipatzen diren **lanbideetan**:
 - Nekazaritza
 - Arrantza
 - Meatzaritza
 - Eraikuntza
 - Manufaktura-industria eta garraioak
 - Metalaren industriako langileak, makineria eta antzekoak eraikitzen dituzten langileak

- ⇒ Lanaldian ezgai-egoera eragiten duten istripuen eragin handiena duten **jarduera ekonomikoaren adarrak** jarraian aipatzen direnak dira:
 - Ikatzaren industria
 - Metalezko produktuak fabrikatzea
 - Zuraren industria eta
 - Eraikuntza
 - **Dezentralizazioaren, enpresen zatiketaren eta azpikontratazioaren** eragina duten enpresak

- ⇒ **Informatzeko sistema**:
 - **Laneko Istripuei** buruzko informazioa emateko Sistemen mugak
 - Langile autonomoak, orokorrean, kanpo geratzen dira
 - Istripu larrien (larritasuna kalifikatzeko irizpide objektiborik ez dagoelako) eta heriotza eragiten duten istripuen (istripua gertatu eta handik egunak edo asteak igaro ostean heriotza eragin duten istripu larriak barne hartuz gero, istripu mota horren kopuruak gora egingo luke) zenbaketak behera egiten du
 - Estatistiketan ez dira istripuen arrazoiak sartzten, istripu horiek eragindako lesioen arrazoiak baizik
 - Aldi baterako laneko enpresek lagatutako langileen kasuan, ez da enpresa erabiltzailearen jarduerari buruzko informaziorik biltzen
 - **Lanbide Gaixotasunen** estatistika Lan Istripuena baino askoz ere txikiagoa da

- ⇒ **Prebentzio Legearen** anbiguotasuna, praktikan aplikatzea eragozten duten kontzeptu juridikoak ditu-eta

- ⇒ Laneko Ikuskapena antolatzeke eredu, 1997ko Laneko Ikuskapenak arautzen dituen Legeak berrantolatzen duena, ez dago guztiz ezarrita
- ⇒ Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruan egiten den **ikerketa** eskasa da, jarraian aipatzen diren arrazoiak direla medio:
 - Finantzaketa eza
 - Ikerketa horren buru izango diren zentrorik ez egotea
 - Ikertzeko orduan lehentasunik ez egotea
- ⇒ **Prebentzio zerbitzuak** ez daude behar bezala araututa, Mutualitateak eta gainerako entitate espezializatuak biltzen baitira

Duran Txostenetik lortutako informazio horretaz guztiaz gainera, Espainiar Estatuan, laneko ezbehar kopurua murrizteko asmoz, Autonomia Erkidegoek martxan jarritako esperientzia eta ekimenen erreferentziak daude. Ekimen horiek, orokorrean, sakonago bihurtu dira Europako Zuzentaraua Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/95 Legearen bitartez Estatuko Legerian sartzearen ondorioz, eta gaiaren funtzio eta erantzukizunak banatzearen ondorioz. Jarraian, ekimen horietako batzuk ikusiko ditugu, adibide gisa.

2.3.2. Beste Autonomia Erkidegoetako zenbait erreferentzia

Laneko Arriskuen Prebentzioari dagokionez, hainbat Autonomia Erkidegoetako Gobernuak Programak eta Planak eraman dituzte aurrera, Laneko Ezbehar kopurua murrizteko asmoz.

Jarraian, horietako batzuei buruz arituko gara, adibide gisa:

- I- **Murtziako** Eskualdean Laneko Istripurik ez izateko Helburua duen Plana
- II- **Asturiasen** Laneko Arriskuak Prebenitzeko Programa Estrategikoa (2001-2003)
- III- **Aragoiko** Autonomia Erkidegoan laneko ezbehar kopurua murrizteko Plana (1998-2000).

Plan horien azaleko esplikazioa, Kanariar Uharteak, Nafarroa eta beste hainbat Erkidegoetan egiten denaren erakusgarria baino ez da

“Murtziako Eskualdean Laneko Istripurik ez izateko Helburua duen Plana”

Murtziako Gizarte Lan eta Politika Sailak Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundearen bitartez, eta Erakunde profesional eta sindikal adierazgarriekin (CROEM, UGT eta CC.OO.) elkarlanean arituz sustatu duen plana da.

Helburua: Enpresetako prebentzioaren kudeaketa eta laneko segurtasun eta osasun baldintzak hobetzea, Murtziako eskualdean laneko ezbehar kopurua errotik kentzen saiatzeko, horretarako enpresaburuei eta langileei aholku eta babes pertsonalizatua eskainiz.

Ezaugarriak: Enpresek aukeratzen dute programan sartu hala ez, eta kostu ekonomikoa zero da. Enpresako zuzendaritzak eta langileek era askean adierazitako konpromisotik abiatzen da.

Laneko Istripurik ez Izateko Helburua duen Planean parte hartzeak enpresentzako dituen abantailak

- Enpresarentzat, kostua zero eurokoa da
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak eta Laneko eta Gizarte Segurantzaren Ikuskapenak laguntza teknikoa eta etengabeko aholkularitza pertsonalizatua ematea
- Lehentasuna, Gizarte Lan eta Politika Sailak dituen programei dagokienez, laguntzak eta dirulaguntzak eskuratzeko orduan
- Enpresa Planaren helburuei eta jarduteko prozedurei buruzko informazio sakona emateko diseinatuta dauden mintegietan sartzea
- Enpresako prebentzioaren kudeaketa hobetzea eta bertako langileen laneko segurtasun eta osasun baldintzak hobetzea
- Langileek enpresako prebentzioaren planifikazioa garatzen parte har dezaten eta lagun dezaten sustatzea
- Enpresako produkzio prozesuen kalitatea hobetzea
- Ezbehar tasak murriztea

- Enpresak lan istripuen ondorioz jasaten dituen kostu ekonomikoak murriztea

“Asturiasen Laneko Arriskuak Prebenitzeko Programa Estrategikoa (2001-2003)”

Programa horrek Laneko Arriskuak Prebenitzeko Asturiasko Institutuaren lanaren jarduteko esparrua osatzen du.

Programa Asturietako Printzerriko Laneko Segurtasun eta Osasun Kontseiluak ikusi eta aztertu zuen, eta programaren aldeko txostena egin zuen (Kontseilua Asturietako enpresa- eta sindikatu-erakunderi adierazgarriek parte har dezaten dagoen hiruko organoa da)

I- Sarrera- Justifikazioa

II- Lanerako bost arlo teknikoentzako berariazko programa eta ekimenak. (89 ekimen)

- II.1 Prestakuntza eta Dokumentazio Arloa (20 ekimen)
- II.2 Laneko Segurtasun Arloa (18 ekimen)
- II.3 Industria Higiene Arloa (23 ekimen)
- II.4 Laneko Medikuntza Arloa (16 ekimen)
- II.5 Aplikaturako Ergonomia eta Psikosoziologia Arloa (12 ekimen)

III- Izaera orokorra duten eragiteko Programak (22 ekimen)

- III.1 Planifikazioari, Kudeaketari eta Kontrolari buruzko Programak (4 ekimen)
- III.2 Antolamendua eta Prestakuntza Hobetzeari buruzko Programak eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Asturiasko Institutua Dinamizatzeko Programak (6 ekimen)
- III.3 Gainerako Administrazioekin Koordinatzeko eta Elkarlanean aritzeko Programak (5 ekimen)
- III.4 Instalazioei, Eraikinei eta Laguntzeko Zerbitzuei buruzko Programak (7 ekimen)

IV- Laneko Arriskuen Prebentzioarekiko Konpromiso Politiko Handia izateko Estrategiak (4 ekimen)

“Aragoiko Autonomia Erkidegoan laneko ezbehar kopurua murrizteko Plana”

Aragoiko Lan Zuzendaritza Nagusiak, Laneko Segurtasun, Higiene eta Baldintzen Zerbitzuaren bitartez, eta istripu-tasa handiena duten enpresen multzoan aurrera eramandako ekimenen kanpaina da.

Osalaneko Ezbehar kopuruaren Aurkako Planaren antzeko ezaugarriak ditu proiektu horrek eta parte hartzen duten alderdien babesarekin eramaten da aurrera: agente sozialen eta enpresa elkarteen babesarekin, alegia.

Planaren helburu nagusia laneko segurtasun eta osasunaren ikuskapenak eta aholkularitza, batez bestekoa baino handiagoa den ezbehar kopuruaren indizeak dituzten enpresatara bideratzea da, istripuen indizeak murrizteko asmoz.

Hautatutako enpresatan aurrera eramandako ekimenak:

1. Taldeko enpresa guztiei egoeraren larritasun mailaren berri ematea
2. Osasun eta segurtasun ikuskatzaileek enpresatara bisitaldiak egitea. Bisitaldi horien helburu nagusia enpresetako istripu-tasaren ezaugarriak aztertzea zen eta, horretaz gainera, Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea zein mailatan betetzen zen baloratzeko inkesta garatzea ere helburu zen.
3. Jarraian aipatzen direnak adierazteko txostenak egitea:
 - ⇒ Enpresa bakoitzeko laneko segurtasun eta osasuna kudeatzeko orduan dauden gabeziak,
 - ⇒ Gabezia horiek zuzentzeko gomendioak eta lan horiek aurrera eramateko epeak
4. Enpresa bakoitzaren ezbehar kopuruaren jarraipena egitea, hilero
5. Hiru hilean behin horren guztiaren berri ematea eta enpresaburuekin eta agente sozialekin jarraipena egiteko aldi behingo bilerak egitea.

2.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Plan zuzentzailea diseinatu eta garatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoerari buruzko azterlan sakona egin du, jarraian aipatzen diren alderdiak aintzat hartuz:

2.4.1. Analisi Kuantitatiboa

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da Erkidegoan 1998ra arte gertatutako istripuei buruzko datuetan oinarrituta egindako ezbehar kopuruaren eta horren eboluzioaren analisi kuantitatiboari buruz aritzea.

Analisi hori esku artean duzun Plan Zuzentzaileko *“Euskal Autonomia Erkidegoan izan den ezbehar kopuruaren daturik esanguratsuenak”* atalean era zabalagoan dago azalduta, eta analisia egin ahal izateko, eboluzioaren hainbat adierazleren jarraipena egin dugu, aztertutako laneko epe, sektore edo talde bakoitzeko biztanleria aktiboari dagokion datuak erabiliz alderaketa erlatiboak egiten dituzten ezbehar kopuruaren eraginari buruzko datuak azpimarratuz.

Analisi kuantitatiboaren ondorioek ezbehar kopuruaren ardua izateko egoera errelera garamatzate, argi uzten baitute Enpresaburuekin eta Agente Sozialekin koordinatutako jarrera aktiboa hartzea beharrezkoa dela, ezbehar kopurua eteteko eraginkorrak diren hitzarmenak lortu ahal izateko.

2.4.2. Analisi Kualitatiboa

Analisi kuantitatiboa egiteaz gainera, analisi kualitatiboa ere egitea komeni zela pentsatu genuen, azken horrek Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoera erreala ezagutzeko funtsezkoa den eta balio erantsi handia duen informazioa ematen duelako. Lan hori, jarraian aipatzen diren zeregin eta informatzeko bideen bitartez egiten da:

2.4.2.1. Joeren Analisia

Nazioarteko Erreferentziak eta Jardunbide Egokiak.

Hurrengo urteetarako aurreikusi daitezkeen lan egoera berriak; horietan gizartean eta politikan gertatzen diren aldaketak, lan egiteko moduetan eta ohituretan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuak eta arriskuen izaeran bertan gertatzen diren aldaketak (gaixotasun psikosozialen hazkundera eta lanbide gaixotasun berriak agertu dira) sartzen dira.

2.4.2.2. Elkarrizketak Euskal Autonomia Erkidegoan parte hartzen duten **agente nagusiekin.**

Agenteen iritzia eta iradokizunak analizatzeko helburuz, azterlan prospektiboa egin zen. Horretarako, 21 elkarrizketa egin ziren parte hartzen duten agenteekin:

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako LZ
- CONFEBASK

- Langile Batzordeak, CC.OO.
- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
- Eusko Jaurlaritzako Epidemiologia Zaintzeko Saila
- Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza eta Lurralde Ordezkaritzak
- Eusko Langileen Alkartasuna, ELA
- Herri-salataritza
- Laneko Ikusapena
- Langile Abertzaleen Batzordeak, LAB
- Bizkai Zergintza Alkartea, MVI
- OSALAN
- Osasun Publikoa
- Langileen Batasun Orokorra, UGT

Azterlan horren bitartez, Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoera hainbat esparruetatik analizatu genuen eta jarraian transkribatuko ditugun zenbait iruzkin eta adierazpen lortu genituen:

Prebentzioaren Kultura eta erantzukizunak norberaren gain hartzea

“Prebentzioaren kultura sustatzeko beharra gizarteko eta laneko hainbat eremutan aurkitu dugu eta aipatzekoa da enpresaburuek, langileek eta biztanleriak, orokorrean, gai horren inguruan duten kultura falta”.

“Pertsonak lanpostuan izan behar duten segurtasuna ez da azpimarratzen lehentasunen artean”

“Pertsonak eguneroko zereginetan izan behar duen prebentzioaren kulturaren transmisioa ez da oinarritzko hezkuntza sistematikaren lehentasuna duen gaia, horrek arriskuak gure gain hartzea ekiditea baino gehiago baloratzen duen kulturara garamatza”

“Arriskuen Ebaluazioa “edukitzera” eta Prebentzio Zerbitzua kontratatzerara mugatzen diren enpresak aurkitzen ditugu; enpresa horien ustez enpresako prebentzioaren erantzukizuna besteren esku uztea posible da”

Prestakuntza eta Informazioa

“Orokorrean jarraitutasunik ez duten langileen prestakuntzan egiten diren inbertsioetan urritasuna dago hori, hein handian, enpleguaren egonkortasun ezaren hazkundera eragiten du”

“Prestakuntzaren kalitateak ez ditu betetzen maila desiragarriak, bai izendatutako langileei, enpresetako prebentzio arduradunei edo produktio langileei beraiei dagokienez”

“Erakundeen maila guztietan prebentzioari buruzko etengabeko prestakuntza eta informazio gabezia dago”

“Zenbait lanpostutan langileek ez dakite zein arrisku errealen eraginpean dauden”

Ezbehar kopuruaren giza faktoreak

“Zenbait adituren ustez, lan istripuen % 80 gizakiek egindako hutsengatik gertatzen dira”

“Sarritan, langileek gehiegizko konfiantza dute lanpostuan eta ez dituzte Babes Ekipamenduak era sistematikoan erabili nahi”

Gazteak

“Istripuek langile gazteen (18-24 urte bitartean) artean duten eragina handiagoa da. Horretaz gainera, badirudi zifrek bi urtetik beherako esperientzia duten langileen artean istripuek duten eragina handiagoa dela erakusten dutela”

Etorkinak

“Datuen arabera Euskadin etorkin kopuru handirik ez dagoela erakusten badute ere, zenbait lan esparrutan eragin garrantzitsua izaten ari da, tradizioz arriskuen prebentzioaren kultura urriagoa den sektore horietan bereziki, hala nola nekazaritzan eta arrantzan. Egoera hori ez behar kopuruarengan eragina duten gainerako faktoreei gehitu behar diegu, hala nola berariazko prestakuntza ez egoteari edo egonkortasun ezari”

Legeria

“Orokorrean, Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/95 Legeak ezartzen dituen baldintzak nahiko izan behar lirateke langileen segurtasuna bermatzeko; gakoa lege hori praktikan jartzeko era da”

“Enpresa askotan gutxieneko lege baldintzak ikuspuntu formaletik betetzen dituzte, baina gabezia garrantzitsuak prebentzio planak benetan aurrera eramateko eta prebentzioa kudeatzeko sistema lanerako tresna bezala erabiltzeko orduan aurkitzen ditugu; horrek pertsonak kulturaren ikuspegitik lanpostuan babesteko orduan dagoen gabeziara garamatza ”

“Baliteke, horretaz gainera, eskakizunen neurria hartzean zailtasunak izatea, eskakizun horiek enpresa motaren, sektorearen, tamainaren eta haren jardueretatik eratorritako arrisku egoeren araberrako izan behar baitira”

“Kulturaren ikuspegitik begiratuta, legea nahitaez betetzera ohituta gaude, eginbidea izango balitz betetzera, eta ez bete behar dela uste dugulako; egoera hori gizarteko beste hainbat eremutan ere gertatzen da (zirkulazio arauak, ogasuna-zergak, eta abar)”

“Enpresek eta langileek legea betetzen ote duten kontrolatzeko, Adiministrazioek ezin dute horrekin era formalean betetzea helburu bilakatu. Benetako prebentzioa kulturaren gertatzen den aldaketaren ondorioz helduko da, guztiok laneko segurtasuna langileentzako, enpresentzako eta, orokorrean, gizartearentzako onura komuna dela pentsatzen dugunean”

Arriskuak ebaluatzea

“Arriskuen Ebaluazioa etengabeen berrikusi behar den lanerako tresna izan behar da, lanposturen bateko segurtasunari lotutako eragina dagoenean edo lanpostuko baldintza orokorrak aldatu direnean, bereziki. Ebaluazioa bizirik dagoen dokumentua izan behar da, ez espediente bat betetzeko dagoen papera”

“Arriskuen Ebaluazio anitz Legea betetzeko egiten dituzte eta ez dira enpresetako LAP jarduera erreal bilakatzen”

Laneko eta lanpostuko baldintzak

“Sarritan segurtasun neurriak (taldekoak eta banakoak) falta dira lanpostuetan. Egoera hori bereziki larria da lan baldintzak berak arrisku handia ekartzen duten sektoreetan

(etengabeen aldatzen ari diren egoerak, meteorologiaren eragina, berez arriskutsuak diren lekuetan egiten diren lanak, eta abar)

LAP antolamendua enpresan

“Arriskuen Prebentzioa ez dago enpresako kudeaketan integratuta. Enpresaburuek, orokorrean ez dute onartzen prebentzioa kudeaketaren oinarritzko zati bat dela. Prebentzioaren errentagarritasuna ez dute onartzen; gehienetan, prebentzioa kostu/zerga bat dela pentsatzen dute”

“Orain, gizartean duen entzutea eta eragina dela-eta, LAP moda bat bezala ulertzen da eta, berez, eguneroko lanaren zati den ohitura izan beharko litzake. Langileak “Oharkabeko babesa” bilatzera heldu behar dira, zerbaitek edo norbaitek babesa etengabeen gogorazteko beharra izan gabe”

Prebentzio zerbitzuak

“ “Mutualite” eta “Mutualitateko Prebentzio Zerbitzua”ren arteko nahastea dago orokorrean; egoera horrek enpresaburuak eta langileak nahasten ditu, bakoitzaren funtzio eta erantzukizunei dagokienez”

“Prebentzio zerbitzuen zereginaren behar bezalako kontrolik ez dago eta hori, zenbaitetan, gutxieneko lege baldintzak betetzera mugatzen da”

“Arlo horietan prestakuntza duten adituen gabezia azpimarratzea ere beharrezkoa da, eta aipatzekoa da 31/95 Legea betetzea dakarten beharrak asetzeko beharrezkoak diren enpresetako sendagileen kasua”

3. OSALAN – LANEKO SEGURASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN EBOLUZIOA .

3.1. OSALANEN SORRERA

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea abenduaren 21ean sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren 7/1993 Legearen bitartez, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari atxikitako erakunde autonomo administratibo gisa.

OSALAN organo tekniko bakarrean Euskal Autonomia Erkidegoari laneko segurtasun, higiene, ingurumen eta osasunaren esparruan dagozkion ekimen guztiak koordinatzeko eta zentralizatzeko helburuz sortu zen; azken helburua langileek onartuta dituzten eskubideei benetako edukia ematea da.

Hori dela eta, **langileen osasun eta segurtasuna sustatzeko eta prebenitzeko** zereginak hartzen ditu bere gain, Espainiako Konstituzioak, Europako Zuzentzauek, Langileen Estatutuak eta EAEko Autonomia Estatutuak ezarritako araudiaren esparruaren barruan.

OSALAN aurretik Eusko Jaurlaritzak existitzen ziren egituretan oinarrituz sortu zen:

- Egun **Lurraldeko Zentroak** diren Segurtasun eta Higieneko bulegoak, Euskal Autonomia Erkidegoari abenduaren 18ko **2557/1985 Errege Dekretuaren** bidez transferitutakoak.
- **Laneko Osasun Zerbitzuak**, horien funtzioak Autonomia Erkidegoari transferitu zizkioten, irailaren 7ko **2209/1979 Errege Dekretuaren** bidez.

Lege-egozpenen premisa horrekin, OSALANek Autonomia Erkidegoan Laneko Arriskuen Prebentzioa hobetzera zuzenduta dauden programak sustatzeko eta garatzeko, langileei prestakuntza emateko, enpresaburuei eta langileei prebentzio lanetan laguntzen dieten gidak eta protokoloak garatzeko eta lan istripuak ikertzeko Lan-administrazioko Agintariei laguntzeko lan garrantzitsua egiten du.

OSALAN, beraz, Eusko Jaurlaritzak Laneko Arriskuen Prebentzio gaitan duen tresna betearazle nagusia da; Autonomia Erkidegoko langileen interesen zerbitzura dago eta, bere funtzioa eraginkorra izan dadin, agenteen zereginak koordinatzen saiatzen da.

3.2. OSALANEN FUNTZIOAK

OSALANen **jarduera** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak **1995eko abenduaren 28an emandako Aginduarekin** hasi zen. (EHAO, 13. zk., 1996ko urtarrilaren 18koa).

OSALANen jarduna langileak dituzten jarduera ekonomikoaren adar guztietara heltzen da, Kooperatibak eta Administrazioa barne. Norberaren kontura lan egiten duten langileen artean ere prebentzioa sustatzeko jarduerak eramaten ditu aurrera, laneko osasun gaietan egiten dituen ekimenak langile guztiengana hel daitezen.

OSALANek, besteren artean, jarraian aipatzen diren funtzioak betetzen ditu:

 **Lan istripuak eta lanbide gaixotasunak eragiteko orduan erabakigarriak diren arrazoak analizatzea eta ikertzea:**

- Horien prebentziozko azteketari ekinez.
- Zuzentzeko neurriak proposatuz.
- Epidemiologia zaintzeko sistema ezarriz.
- Laneko ezbehar kopuruari eta eritasun kasuen kopuruari buruzko datuak eginez eta baloratuz.

 **Langileen osasunarentzako arriskuak ekarri ditzaketen alderdiei buruzko azterlanak, txostenak eta aholkularitza-lanak egitea:**

- Lan baldintzei, makineria eta prozesuak langileen gaitasunen arabera moldatzeari, droga mendekotasunak lanean duen eraginari eta abarri buruzko ikerketa programak eginez eta sustatuz.
- Administrazioei gomendio teknikoak eta araudiaren erreformak proposatuz.
- Enpresei, langileei eta agintari publikoei laguntza teknikoa emanez.
- Planifikazioari bideratutako arriskuen mapak eginez.

 **Kontrolak programatzea eta garatzea:**

- Lan-administrazioiko Agintariei informazioa emateko eta, kasuaren arabera, prebentzio zerbitzuen, prestakuntzarako entitateen eta kontu-ikuskaritza egiten duten entitateen egiaztapena eta kontrola edo ikuskapena egiteko funtzioak aurrera eramanez.
- Enpresetako segurtasun maileri buruzko kontrol orokorrak eta sektoreen arabeko kontrolak eginez.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko araudia era larrian edo behin eta berriro hausten denean Lan-administrazioiko Agintariak jakinaren gainean jarritz.

 **Laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten informatzeko eta prestakuntza emateko jarduerak antolatzea eta garatzea.**

- Bere funtzioak aurrera eramateko orduan, OSALAN agintaritza publikoko agente dela kontsideratzen da eta, horretaz, lantokietako titularrek bertara sartzeko bide librea eman behar diete OSALANeko langile teknikoei.

3.3. OSALANEN JARDUERA EREMUAK (1998-2002).

OSALAN hainbat lan eremutan aritzen da, baina aipatzekoak dira jarraian aipatzen direnak:

Laneko ezbehar kopuruaren tasa murriztera bideratuta dauden jarduerak

- Ezbehar Kopuruaren aurkako Plana (jarduera orokorrak eta sektoreko berariazko planak)
- “Lantokiak irekitzeko” Plana
- Metodologia eskuliburuak, azterlanak eta abar egiteko berariazko proiektuak garatzea.

Laneko Segurtasun, Higiene eta Ingurumena

- Ezbehar kopuruari buruzko estatistikak egitea: Laneko istripuak eta Lanbide Gaixotasunak ikertzea
- Enpresentzako eta Administrazio publikoentzako aholkularitza teknikoa
- Lan-administrazio Agintariei, enpresei eta abarri txosten teknikoak ematea
- Normalizatzeko Batzordeetan eta Araudia Egiteko Batzordeetan parte hartzea
- Argitalpenak
- Prebentzio Zerbitzuen, prestakuntza ematen duten entitateen eta Prebentzio Zerbitzuen kontu-ikuskaritzak egiteko baimena duten enpresa edo pertsonen sinestamenduekin zerikusia duten txostenak egitea lan-administrazio agintarientzat

Laneko Osasun Arloa

- Arriskuen eraginpean dauden langileak zaintzeko osasun protokoloak egitea.
- Sektore jakinetako langileen osasuna zaintzea.
- Epidemiologia zaintzeko sistema ikertzea eta analizatzea.
- Laneko osasunari-Epidemiologiaren zaintzari buruzko informazioa emateko sistemak
- Enpresan droga mendekotasunak prebenitzeko programa

Prestakuntza eta Informazio Arloa

- Prestakuntza ematen duten entitateen jarduerak kudeatzea eta kontrolatzea.
- Prebentzioaren kultura sustatzeko jarduerak.
- Enpresa eta langileentzako prestakuntza ikastaroak, informatika programak, argitalpenak eta abar sustatzea eta kudeatzea.
- Prestakuntza ikastaroak, jardunaldi teknikoak antolatzea eta bestelako erakunde edo entitateek antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzea.
- Prebentzio ordezkarien prestakuntza kudeatzea.
- Laneko Osasunari buruzko Informazioa emateko Sistemak (Prebentzio Zerbitzuak, lanbide gaixotasunak, enpresetako sendagileen zerbitzuak)
- Langile berriei zuzendutako gida

Sustapena

- OSALAN sustatzea, erakundeetan eta jendartean egotea, kongresuak eta abar
- Txostenak, argitalpenak, katalogoak eta abar
- Berriazko kanpainak, sektoreen arabeko kanpainak eta abar

Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko tresnak eta argitalpenak garatzea

- Laneko Arriskuen Prebentzio Sistematan Kontu-ikuskaritzak egiteko Eskuliburua
- Enpresa txiki eta ertainetan Larrialdietarako Planak egiteko oinarriko Eskuliburua
- Kanpoko Prebentzio zerbitzuekin dauden prebentzio jardueren kontzertuen gida, espezialitateen arabera banatuta
- Istripuak Ikertzeko Metodologia.
- Bestelako erreferentziako eskuliburuak eta dokumentu teknikoak ...

Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko informazioa emateko sistema

- Lanbide Gaixotasunei buruzko informazioa emateko Sistema kudeatzea
- “Lanbide Gaixotasunen berrizkaturak kontrolatzeko” Proiektua
- 2000 urteko “gihar eta hezurretako lanbide gaixotasunen arrazoiak zehazteko galdeketa egitea eta gidatzea” proiektuan lortutako datuak analizatzea eta argitaratzea
- Amiantoaren eraginpean dauden langileen jarraipena, ebaluazioa eta osasunaren zaintza egitea
- “Prebentzio Zerbitzuen Gutxieneko Datu-multzoa” informatika aplikazioa egitea eta martxan jartzea
- “Adieraz Beharreko Gaixotasunei (ABG) eta mikrobio-adierazpenari buruzko informazioa emateko sisteman oinarrituz, Lanbide Gaixotasunak Zaintzea” Proiektua

Osasuna zaintzea, protokoloak egitea

Prebentzioa kudeatzeko sistemak ikertzeko, horietan inbertitzeko, horiei buruzko prestakuntza jasotzeko eta sistema horiek ezartzeko dirulaguntzak

4. INGURUAREN EBOLUZIOA ETA AURREIKUSI DAITEZKEEN EGOERAK

Mundua industriaren oinarritik informazioaren gizarterantz, zerbitzuen gizarretik igaroz, eboluzionatzen doan heinean, lantokiak ere aldatzen doaz. Lan egoera berri horiek langileentzako arrisku berriak suposatzen dituzte, eta erronka berriak enpresentzat.

4.1. INGURUAREN EBOLUZIOA

Egun, gizarrean, lanean eta laneko segurtasun eta osasunean eragina duten aldaketak ezaugarri dituen trantsizioa gertatzen ari da.

Aldaketa horiek erakunde publiko eskudunek enpresetako osasun eta segurtasunaren hobekuntza era eraginkorrean babesteko orduan hartu behar dituzten metodoetan eragina izan dezakete.

Aldaketek laneko osasun eta segurtasuna kaltetu ez ditzaten saiatzeaz gainera, aldaketa lan baldintzak hobetzeko aukera bezala erabili daiteke.

Aldaketak lan egiteko eratan

- ⇒ Aldaketak enpresen ezaugarri eta funtzionamenduan eta enplegu sektoreetan
 - Laneko segurtasun eta osasuna kudeatzeko baliabide eta ezagutza praktikorik ez duten eta, beharbada, horien beharra dutela onartuko ez duten **enpresa txiki, ertain eta mikroenpresa** kopuruak gora egitea. Beharbada ez dago kudeaketarako egitura formalik eta horrek eragina izango du osasuna eta segurtasuna kudeatzeko prozesuan
 - Enpresen **kudeaketa horizontalagoa**
 - Tradiziozko enpresa handiak **zaititza**, era horretan, enpresetako zenbait arlok erdi autonomoak izango balira bezala funtzionatu dezakete eta kudeatzeko lanak maila baxuagoko postuen esku uzten dira; horrek osasun eta segurtasun gaietan dauden eskumenei, eta erabakiak hartzeko orduan dauden erantzukizunei buruzko zalantzak sor ditzake. Erakunde handiak gero eta lauago eta espezializatuago bilakatzen ari dira.
 - Tamaina handiko enpresek gero eta maizago **azpikontratzen** dituzten berezko zerbitzuak eta horrek osasun eta segurtasun gaietako eskumenen inguruko zalantzak sor ditzake.
- ⇒ Kontratu motak eta horien behin-behinekotasuna aldatzea
 - **Aldi baterako kontratuen** hazkundea, kontratu horien baldintzak, orokorrean, kontratu finkoenak baino txarragoak izan ohi dira, batez ere laneko inguru fisikoari eta enplegu baldintzei dagokienez, kontratu mota hori duten langileen prestakuntzara ez direlako hainbeste heltzen
 - Gero era **langile autonomo** gehiago egotea; langile horiek ezin dute benetako kontrola izan kontratatzen dieten lanaren gainean, eta ezta lan horren osasun eta segurtasunari lotutako alderdien gainean ere
- ⇒ Lanorduak aldatzea
 - **Lanaren intentsitateak** gora egitea eta **aurreikusi ezin daitezkeen ordutegi** gehiago:
 - Ordutegiak asteburuera zabaltzea

- Gero eta ordutegi gorabeheratsuago gehiago izatea
 - Ordutegi oso murrizak (nahi gabe lanaldi partzialeko lana egitea) eta luzeegiak (nahi gabe ordu osagarriak egitea) erabiltzea
 - **Lana era malguagoan banatzea** (laneko txandak), zerbitzuak egunean ordu gehiagoz eskaini ahal izateko edo instalazioak ordu gehiagoz erabili ahal izateko.
- ⇒ Lanaren antolamendua aldatzea
- Taldeko lana
 - Lana dibertsifikatzea, lanpostuen artean txandakatzea eta sailen artean txandakatzea
 - Ezagutza kudeatzea
 - **Urrutiko lana** eta **Sare Birtualak**; sistema horiek lana etxetik egitea ahalbidetzen dute eta horrek arrisku berriak sor ditzake, etxeak ez baitaude lantoki izateko pentsatuta ezta moldatuta ere, eta langileak lantoki nagusitik isolatuta baitaude

Aldaketak gizartean

- ⇒ Ekonomia Globalizatzea
- ⇒ **Teknologian** gertatu diren **aldaketa azkarrak**
- Tradiziozko lanpostuetan aldaketak eragiten dituzten **Informazioaren** eta **komunikazioaren teknologia** erabiltzea (merkataritza elektronikoa, enpresa birtualak, Internet); horrek arazoak sor ditzake 3 arlotan:
- 1) ikusmenaren zentzumen-sistema
 - 2) prozesu kognitiboak
 - 3) esku/besoen mugimenduetan parte hartzen duten erantzun psikomotorrak
- ⇒ Lanaren banaketa industrialean aldaketak gertatu dira, tradiziozko arloetan gainbehera izan da eta **zerbitzuen sektorean** hazkunde handia gertatu da; horrek, sarritan, jendearekin harremana ekartzen du eta laneko estres eta indarkeria egoerak eragin ditzake.
- ⇒ Aldaketak biztanleria aktiboan
- Hurrengo hamarkadetan biztanleria aktiboa zahartu egingo da
 - Emakumezko gehiago izatea biztanleria aktiboaren artean
 - Langile etorkinen kidegoak gora egitea (hizkuntza arazoak)

4.2. AURREIKUSI DAITEZKEEN EGOERAK

Lan munduak eboluzio azkarra izan du enpresen beharrei eta teknologia berriei erantzuna emateko. Horrek guztiak eragina izan dezake laneko segurtasun eta osasunean. Lan munduan dauden arrisku motetan eta arrisku horien izaeran eragina izan dezakete, eta baita arriskuak kudeatu behar diren eran ere. Baldintza horiek gihar eta hezurretako eta estres arazoan gainean eragina izaten lagundu dezakete, nahiz eta tradiziozko arriskuak oraindik ere existitu.

Laneko inguru berriak

Goraka ari diren arriskuak eta Lanbide Gaixotasun berriak

Azterlan garrantzitsuek pertsonen lanean lehen baino arazo fisiko gehiago jasaten dituztela erakutsi dute; horrek teknologia berriak zama duten objektuak altxatzea bezalako zailtasunak errotik kendu dituztenaren ustea desagertarazten du

- ⇒ Gaixotasunen eraginak gora egitea
 - Laneko estresa eta gaixotasun psikosozialak,
 - Traumatismo errepikakorak,
 - Gihar eta hezurretako arazoak, ...
- ⇒ Lanbide gaixotasun berriak agertzea
 - Absentismo psikologikoa,
 - *Mobbinga* edo lanean indarkeria psikologikoa jasatea
 - *Burnout* edo laneko higadura

Joera berriak:

- ⇒ 2002-2006 Laneko Osasun eta Segurtasun estrategia berria: Europar Batzordeko Jakinarazpena

Europar Batzordeko Jakinarazpena **“Nola moldatu gizartean eta lan munduan gertatzen diren aldaketetara: osasun eta segurtasunaren gaineko Europar Batasuneko estrategia berria (2002-2006)”**

Jakinarazpena Europako Batzordeak argitaratu zuen 2002ko Martxoaren 11n.

Dokumentu horretan 2002-2006 aldirako Laneko Osasun eta Segurtasun estrategia berria aurkezten dute:

- Lan munduan gertatzen diren aldaketak eta arrisku berriak aintzat hartzen dituen eta **Lanaren kalitatea** (lan inguru osasungarri eta seguruagoa) hobetzera bideratutako ikuspegia
- Arriskuen prebentzioaren kultura, jarraian aipatzen direnak konbinatuz, kontsolidatzea:
 - ✧ Tresna politikoak
 - legedia,
 - elkarrizketa soziala,
 - aurrerapausoak emateko bideak,
 - ohitura hobeen adibideak aurkitzea,

- enpresen gizarte erantzukizuna
- pizgarri ekonomikoak,...

✧ Segurtasunaren eta Osasunaren esparruko agente guztien arteko elkarlanerako elkarrekin

⇒ Europar Batzordearen Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko liburu berdea

Batzordeak 2001eko uztailean onetsi zuen eta Laneko Osasun eta Segurtasunari buruzko atal espezifikoak duen liburuak.

Enpresen gizarte erantzukizuna (EGE) enpresek era boluntarioan gizarte hobea eta ingurumen garbiagoa izateko egiten duten ekarpena da. Horretarako, ezinbestekoak dira goi-zuzendaritzaren konpromisoa, pentsamolde berritzailea, langileen gaitasun berriak eta langileek eta horien ordezkariak alde biko elkarriketan parte hartzea.

Hainbat enpresek erantzukizuna gizarteko, ekonomiako eta ekologiako presioak direla-eta eramaten dute aurrera. Hori horrela, enpresek etorkizunean inbertitzen dute eta hartutako konpromisoak horien errentagarritasun hobetzen laguntzea espero dute.

Enpresen Laneko Segurtasun eta Osasun gaietako Gizarte Erantzukizunaren kontzeptuak inplikatzeko duen konpromisoak legeak gutxienez eskatzen dituen baldintzen ginetik dauden helburuak eta neurriak dakartza.

5. EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENTZAT DUEN LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

5.1. ZEREGINA, IKUSPEGIA, PRINTZIOAK ETA BALOREAK

“EAEko biztanleen bizi-kalitatea Laneko Segurtasun eta Osasunaren bitartez hobetzea” Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak duen **Zeregina** da.

Oinarrizko printzipioak:

- ✓ Laneko Segurtasun eta Osasunak Langileen, Enpresaburuen, Agente Sozialen eta Administrazio Publikoen baloreen eskalan lehentasunezko lekua izan dezan lan egitea.
- ✓ Prebentzioaren kontzeptua Euskal Autonomia Erkidegoan Laneko Segurtasun eta Osasun gaitan jarduteko oinarri bezala sustatzea.
- ✓ Sindikatuen, Enpresa Elkarteen eta bestelako Agenteen ahaleginak batzea, Laneko Segurtasun eta Osasun baldintza hobetzeko helburuz eta bakoitzari legez dagozkion betebeharrak alde batera utziz.
- ✓ EAEko biztanleriari lanpostuan pertsonak babesteak duen garrantziaz kontzientzia harraraztea, horretarako ikastetxeen, lanbide heziketaren, unibertsitatearen eta, orokorrean, jendartearen eremuetan kulturaren sustatzeko jarduerak eginez .

Jarraian Euskal Autonomia Erkidegorako Laneko Segurtasun eta Osasunaren gaineko Plan Zuzentzailea bideratzen duten **Baloreak** aipatuko ditugu:

- Pertsona da Planetik eratorritako hausnarketa eta ildo guztien gune neuralgikoa; eta laneko baldintzak hobetzea, ildo bakoitzeko jarduera espezifikotako helburu nagusia da.
- Laneko Segurtasuna, betebeharrak izateaz gainera, enpresa erakundeei giza balioa, balio soziala eta errentagarritasuna ematen dien oinarritzko pilarea da.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten langile guztiek bere jarduera profesionaletik eratorritako arrisku guztien berri izateko, eta horien aurrean babestuta egoteko eskubidea eta betebeharrak dute, horien lanbidea, sexua, kultura, prestakuntza, jatorria edo prestakuntza pertsonal edozein dela ere.
- Langileen eskubideak babestea eta langileak arriskuen aurrean babestea oinarritzko printzipioa da Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko arloek Laneko Segurtasun eta Osasunarekin zerikusia duen edozein jarduera martxan jartzen dutenean.

5.2. ERAKUNDE ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA

Eusko Jaurlaritzak, Laneko Segurtasun eta Osasun Arloan dituen eskumenak, jarraian aipatzen diren Organo eta Erakundeen bitartez eramaten ditu praktikara:

- Laneko Osasuneko arauak garatzea: Osasun Sailaren bitartez eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren elkarlanarekin.
- Zigortzeko ahalmena: Lan- eta Osasun-administrazioko agintarien bitartez.
- Lan arloko zaintza eta kontrola: Laneko Ikuskapenaren bitartez; osasun arloko zaintza: OSALANeko Laneko Osasun Unitatearen bitartez.
- Ezagutzera emateko, aholkularitza lanetarako, prestakuntzarako eta informatzeko: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak langileak lanpostuan kontrolatzeko eta horien babesa sustatzeko ardura du, horretarako Autonomia Erkidegoko esparru guztietan Laneko Segurtasun eta Osasuna hedatzeko, ikuskatzeko eta prestakuntza emateko jarduerak martxan jarri.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa Laneko Prebentzio eta Segurtasun Estrategien Plan Zuzentzailea martxan jartzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen beharrei erantzun egokia eman ahal izateko; horretarako Enpresatako Agenteekin, Sindikatuarekin, Administrazio Publikoekin eta parte hartzen duten gainerako Agenteekin koordinatutako jarduerak aurrera eramanez, helburu komuna den EAEko langileen Laneko Segurtasuna eta Osasunaren alde lan egiteko beharrezkoak diren mekanismoak martxan jartzeko helburuz.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, datozen urteetan, egun Administrazio Publikoen artean dagoen eskumenen sakabanaketan era aktiboan lan egin nahi du. Euskadin Laneko Arriskuen Prebentzioarekin zerikusia duten jarduerak Eusko Jaurlaritzako eta Estatuko Administrazio Orokorreko Sailen artean banatuta egoteak zuzendu behar diren teknikarien eta arduradunen jardunetan desorekak sortzen ditu. Horrekin jarraiki, Agenteen arteko koordinazioa oinarritzat dela pentsatzen dugu.

5.3. ENPRESABURUEKIN ETA GIZARTE-AGENTEEKIN ELKARLANEAN ARITZEA

Horretaz gainera, Euskal Administrazio Publikoaren eta Enpresaburu eta Sindikatuen arteko elkarlana Plan Zuzentzailea eta bertatik eratorritako jarduerak martxan jartzeko funtsezkoa dela pentsatzen dugu.

Enpresaburuek langileen eta laneko arriskuen prebentzioari dagokionez dituzten ardurak direla-eta, ekimen guztietako funtsezko pilarea dira.

Enpresetako prestakuntza planak, beharrezkoak diren baliabideak esleitzea, ekipamendu eta makineria egokian egiten diren inbertsioak eta enpresetako agenteen beraien buruzagitza langilean lanean babesteko beharraz kontzientziazio handiagoa lortzeko funtsezko alderdiak dira.

Zeregin garrantzitsu horri Sindikatuek eta Enpresetako Erakundeek duten erantzukizun eta garrantzia gehitu behar diogu, izan ere, ezagutzera emateko eta kontzientziatzeko egiten duten lanarekin, langileak gaitzeko era aktiboan egiten dute lan, eguneroko lanean eragiten dieten arriskuen aurrean prebenitzeko orduan dituzten eskubide eta erantzukizunei buruzko aholkuak ematen dizkiete.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Enpresaburu eta Sindikatuekin bat etortzeko beharrezkoak diren baliabide eta bitartekoak erabiliko ditu, Plan Zuzentzailetik eratorritako ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko langileen lan baldintzak hobetzeko eta ezbehar kopuruaren aurka egiteko orduan eraginkorrak izan daitezen dagoen bide bakarra uste baitu.

5.4. PLAN ZUZENTZAILEAREN BARNE HARTZEN DIREN JARDUEREN OINARRIAK

Plan Zuzentzailean aurkezten ditugun lan lerroek jarduteko maila ezberdinak dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan lanaren esparruan hainbat errealitate daudelako eta bakoitzak trataera ezberdina behar duelako.


Hiru ekimen mota desberdinduko dugu :

- ✓ **IZAERA OROKORRA** duten ekimenak.
- ✓ **Ekimen ESPEZIFIKOAK EDO SEKTOREEN ARABERAKOAK.**
- ✓ **BARNEKO** ekimenak

Horretaz gainera, hainbat lan lerro daudela aintzat izan behar dugu eta lerro bakoitzaren eraginkortasuna eta sakontasuna lan baldintzetan eragiten duten alderdien arabera izango da:

- Ekipamendu eta makineriari lotutako alderdiak
- Lan prozesuekin eta prebentzioaren antolamenduarekin zerikusia duten alderdiak
- Langileen prestakuntza eta gaitasunak
- Kultura

Horrekin jarraiki, kulturaren aldaketa bilatzeko helburua duten jarduerak ahalegin handiagoa eskatzen dute, horiek etorkizunean izango duten eragina sakonagoa izango baita.



5.5. PLAN ZUZENTZAILEKO HELBURUAK

Plan Zuzentzaileko helburuak bi ataletan bildu daitezke:

- Azken helburuak:

Planak Euskal Autonomia Erkidegoko eraginaren indizeak murriztu behar ditu (“kudeatu” edo prebenitu daitezkeen istripuei dagokienez).

- Helburu instrumentalak:

Zuzenean kontrolatu ezin daitezkeen azken helburuak lortzeko, Planak kontrolatu daitezkeen tresnengan jardutea proposatzen du.

Jarraian **azken helburuak** aipatuko ditugu:

Jarduera sektoreak	Eraginaren indizeak			
	2003	2004	2005	2006
Nekazaritza eta arrantza	- 4 puntu (globala)			
Industria	- 1 puntu	-2 puntu	-1 puntu	-1 puntu
Eraikuntza	- 5 puntu (globala)			
Zerbitzuak	-0,5 puntu	-1,5 puntu	-1 puntu	-1 puntu
GUZTIZKO batez bestekoa	- 4,5 puntu (globala)			

Murrizketa hori, aldiaren osotasunean, globalki 4,5 puntukoa da.

Sektoreka, lehen sektorean eta zerbitzuetan 4 puntutan ezartzen da, eta 5 puntutan industria eta eraikuntzan.

2003-2006 aldirako zehaztutako **helburu instrumentalak** jarraian aipatzen direnak dira :

JARDUNA	2.002 URTEA	2.003 URTEA	2.004 URTEA	2.005 URTEA	2006 URTEA
I+B proiektuak	2	4	6	8	8
Lan istripuei buruzko txostenak	556	675	800	850	900
Lanbide gaixotasunei buruzko txostenak	89	110	150	170	200
Lantokiak irekitzeko prozesua kontrolatzea (eraikuntza kanpo)	Jakinarazitako irekitzeen % 23	40%	60%	80%	100%
Hirugarren alderdiei eskatutakoari buruzko txostenak	278	330	390	414	434
Argitalpen zientifikoak	6	8	10	11	12
Lantokietarako bisitaldiak	1.796	2.353	2.776	2.943	3.090
Eraikuntza lanak kontrolatzea	Jasotako jakinarazpenen % 27	Jakinarazita koaren % 100	Jakinarazita koaren % 100	Jakinarazita koaren % 100	Jakinarazita koaren % 100
Prebentzio ordezkariak prestatzea	523 ordezkari	Hautetsitako ordezkarien % 20	Hautetsitako ordezkarien beste % 40	Hautetsitako ordezkarien beste % 20	Hautetsitako ordezkarien % 20
Berariazko prestakuntza, jardunaldi teknikoetan	2.896 pertsona	3.505	4.135	4.383	4.600
Osasuna zaintzeko sendagileen zerbitzuen Ikuskapena	31 ikuskapen	60	120	240	300
Administrazio publikoen prebentzio sistemaren kontu-ikuskaritzak egitea	Arauaren hutsa	Informazioa ematea	sistemen % 20	gauza bera	gauza bera
Dirulaguntzak	276.476 Euro	442.000 €	500.000 €	600.000 €	700.000 €
Amiantoaren lan egin ostean langileak kontrolatzea	1.052	2.000	4000	6000	8000
Hartutako analisi bidezko erabakiak - higiena	1.309	1.440	1.584	1.792	1.926
Laborategiko txostenak – higiena	102	120	140	160	180
Laneko arriskuak ikertzeko bekak	Bat ere ez	Bat ere ez	10	20	30

6. EGOERAREN AMIA MATRIZEA: GARAI BERRIETAKO ERRONKAK

AMIA analisiaren helburua Laneko Segurtasun eta Osasun gaietako egungo egoeraren analitik eratorritako Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak identifikatzea da, aurreko ataletan jada garatu dugun aurretiko diagnosiaren emaitzetan oinarrituz.

AMIA azterlanak jarraian aipatzen den irizpidea erabiliz identifikatutako arrisku faktoreen sailkapenean jartzen du arreta:

- Jatorria kulturaren duten alderdi arriskutsuak
- Pertsonen gaitasunekin zerikusia duten alderdiak
- Enpresetako laneko prozesuek eta antolamenduak eragindako alderdiak
- Jatorria babes ekipamenduetan eta makinerian duten alderdiak.

Sailkapen horren bitartez, jarraian dagoen eskemarekin bat datorren Sintesi Egoera deskribatu nahi dugu:

Escenario Síntesis

Factores	Descripción	Análisis Cualitativo	Análisis Cuantitativo
Cultura	Prioridad que se confiere a la prevención y seguridad en la empresa y sociedad	<ul style="list-style-type: none"> • Falta de cultura preventiva a niveles (Ciudadanía / empresariado trabajadores/as): No se asignan • Diferentes planteamientos de políticas objetivos entre los distintos agentes: problema es de otro • Seguridad percibida como “coste” 	<ul style="list-style-type: none"> • Escasez de datos socioeconómicos • Sectores con mayor siniestralidad asociados a aspectos culturales
Habilidades	Cualificación y capacitación de las personas en relación con el riesgo del puesto trabajo	<ul style="list-style-type: none"> • Colectivos de baja inmigración, temporalidad, movilidad en puesto trabajo • Subcontratación especializada • Necesidades de formación 	<ul style="list-style-type: none"> • Mayor siniestralidad en joven y recién empleado
Procesos	Grado en que los procesos garantizan la seguridad del trabajador/a	<ul style="list-style-type: none"> • No integración de la PRL en la empresarial (proceso-cultura) • Evaluación de riesgos burocratizada • Cumplimiento formalista de la LPRL 	<ul style="list-style-type: none"> • Relación directa entre menor industrialización y siniestralidad (construcción y pesca) • Más accidentes erpymes
Equipos	Adecuación de maquinaria y EPI's	<ul style="list-style-type: none"> • Maquinaria obsoleta • Sistemas de protección personas 	<ul style="list-style-type: none"> • Relación directa entre menor industrialización y siniestralidad (construcción y pesca)

[TABLA]

Escenario síntesis: Sintesi Egoera

Factores: Alderdiak

Cultura: Kultura

Habilidades: gaitasunak

Procesos: Prozesuak

Equipos: Ekipamenduak

Descripción: Deskribapena

Prioridad que se confiere a la prevención y seguridad en la empresa y sociedad: Prebentzioari eta segurtasunari enpresan eta gizartean ematen zaion lehentasuna

Cualificación y capacitación de las personas en relación con el puesto de trabajo: Pertsonen lanpostuaren arabera duten prestakuntza

Grado en que los procesos garantizan la seguridad del trabajador/a: Prozesuek langileen segurtasuna zein mailatan bermatzen duten

Adecuación de maquinaria y EPIs: Makineria eta Banako babes ekipamenduak moldatzea

Análisis Cualitativo: Analisi Kualitatiboa

Falta de cultura preventiva a niveles (ciudadanía/empresariado/trabajadores): No se asignan: Mailatan prebentzioaren kultura falta egotea (biztanleria/enpresaburuak/langileak): Ez dira esleitzen

Diferentes planteamientos de políticas objetivos entre los distintos agentes: problema es de otro: Politika planteamendu objektibo ezberdinak agenteen artean: arazoa bestearena da

Seguridad percibida como “coste”: Segurtasuna “kostua” bezala ulertzen da

Colectivos da baja inmigración, temporalidad, movilidad en puesto trabajo: Etorikin, behin-behinekotasun, lanpostuko mugikortasun gutxiko kidegoak

Subcontratación especializada: Espezializatutako azpikontratazioa

Necesidades de formación: Prestakuntza beharrak

No integración de la PRL en la empresarial (proceso-cultura): LAP enpresan ez integratzea (prozesua-kultura)

Evaluación de riesgos burocratizada: Burokratizatutako arriskuen ebaluazioa

Cumplimiento formalista de LPRL: LAPL era formalistan betetzea

